



Lekunberrin egingo dute aurten Natur Bideen Eguna

ABALTZISKETA ▶

Tolosaldeko nafartarrek ibilaldia egingo dute

Ausa-Gaztelu igoko dute hilaren 20an ▶ 5

LEITZA ▶ Igandean izango da, eta Plazaolan barrena lau ibilaldi proposatuko dituzte, bat Leitzan

PARTE-HARTZEA ▶ Ibilbideak egiteko izena ematea gomendatzen dute, Leitzan edota Lekunberrin ▶ 7

FERNANDO SAUNDERS ▶ MUSIKARIA

«Zuzenekoetan magia sortu dadin uzten dugu»

Musikari estatubatuarrak bere azken diskoa aurkeztuko du etzi Leidorren ▶ 3



L. GARCIA



TOLOSA ▶

Bertso jaialdia bihar, Leidor aretoan

Amnesty International taldearen urteurrena dela-eta egingo dute ▶ 2

Atzo, aurkezpenaren. i.t.

hitza

Harpidedunen txokoa

GAUR Ibarako Garagardo Festan afaltzeko zozketatu ditugun 2 afarien harpidedun irabazlea honako hau da:
▶ Amale Zinkunegi Arzelus (Tolosa)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



KIROLAK ▶

Gipuzkoako
Eskolartekoan
eskualdeko
xake jokalariek

ERREDAKZIOA

Iragan asteburuan Gipuzkoako Eskolarteko Xake Jokoen finalak jokatu zituzten Donostian. Bertan izan ziren martxoan Tolosan jokaturako zonaletik sailkatutako jokalariek. «Oso lan txukuna» egin zuten, eta lehen hamar postuetan amaitu zuten askok. Horrela, infantiletan, Orixeo Aimar Intxaurren Gipuzkoako seigarren dago, bosgarrenarekin berdinduta. Eta Anoetako Ikastolako Oihana Etxenike zazpigarrena. Oihanak gainera, Euskadiko Jokoetarako txartela eskuratu du Gipuzkoako neskarik onena bezela. Aipatzekoa baita ere Berastegiko Muñagorriko Bepi Salbarredik lortutako bederatzigarren postua. Alebinetan, berriaz, Villabonako Jesusen Bihotzako Eneko Maiz podiamera igotzeko zorian izan zen. Eta bere lehen urtean baita ere, emaitza ona Asteasuko Pello Errotako Mikel Muguruzak lortutakoa. Gipuzkoako bederatzigarren. Azkenik, taldeka, Jesusen Bihotzako hirugarren izan zen.

Bestalde, datorren igandean Kutxa Xake Topaketak hasiko dira. Tolosaldeko jokalarien parte-hartzearekin.

KULTURA ▶

Bertso jaialdia bihar,
Gipuzkoako Amnesty
Internationalen eskutik

Sortu zela 30 urte betetzen direlako antolatu dute ekitaldia, Lankurekin elkarlanean; Leidorren izango da 22:00etan

IÑIGO TERRADILLOS

«Gipuzkoan bete dituen 30 urteak ospatzeko helburuz», Amnesty International giza eskubideen nazioarteko babeserako lan egiten duen mundu mugimendu independenteak bertso jaialdia antolatu du Lanku bertsoegintza enpresarekin batera. Ekitaldia Leidor aretoan izango da bihar 22:00etatik aurrera, eta Servikutxan daude sarrerak salgai, 8 euroren truke. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jokin Soroazabal, Jesus Mari Irazu, Aitor Mendiluze eta Amaia Agirre bertsolariak ariko dira jaialdian.

Amnesty Internationalek atzo eginiko aurkezpenean azaldukoaren arabera, «ekitaldi honen helburua giza eskubideen gaitetara hurbiltzea da, askotan egotzen zaizkion urrutitasuna, seriotasuna, dramatismoa) eta hausnarketarako ere balio dezakeen saio alai eta giro oneko bat burutuz».



Eñaut Otazo eta Ana Bereziartua Amnesty Internationaleko kideak. 1.7

Eñaut Otazo Amnesty Internationaleko partaidearekin batera, Ana Bereziartua izan zen aurkezpenean. Ia duela 40 urtetik da talde honen bazkide, eta Gipuzkoako ordezkartzako sortzaileetakoa da. «Indarke-riaz baliatu ez diren eta horren erabilera sustatu ere egin ez

duen pertsona presoan askatasunaren alde; preso politiko guztiak azkar eta neutraltasunez epai ditzaten; era guztiako presoek ezartzen zaizkien tortura oro bertan behera utz daitez; hilketa politiko, desagertzea eta justiziaz kanpoko exekuzioak behin betiko desa-

DATUAK ▶

BERTSO JAIALDIA

Eguna, ordua lekua. Bihar, 22:00etatik aurrera Leidor aretoan.

Sarrerak. Servikutxan 8 euro ordainduta.

Bertsolariak. Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Jokin Soroazabal, Amaia Agirre eta Sebastian Lizaso ariko dira.

ger daitez; gatazka armatuetan gobernuak legez kanpoko hilketarik ez dezaten egin; giza eskubideen urratzaileak justiziaren aurrera eramanak izan daitez; eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen kontrako gehiegikeria larrien kontra agertzea izaten da dira besteak beste jorratzen ditugunak», dio. «Halaber, ikastetxeetarako unitate didaktikoak ere prestatzen ditugu, giza eskubideetan heziketako eta sentsibilizatze-ko».

Bertso saioak «modan»

Abenduan beste bertso jaialdi bat antolatu zuen Amnesty Internationalek eta emaitzarekin gustura geratu zirenez errepikatzea erabaki dute biharko saioarekin. Unai Elizasu Lanku bertsoegintza enpresako kidearen esanetan, «bertso ekitaldiak modan daude, batez ere, bere esentzia mantentzen dutelako; Tolosan, esaterako, saio ugari egiten ari dira azkenaldian, seinale ona da hori».

ERABAKI AL DUZU non jarraitu zure ikasketak?

ETORRI eta ezagutu MONDRAGON UNIBERTSITATEA bertatik, ATE IREKIEEN SAIOETAN

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA Arrasate-Mondragón ARETO NAGUSIA	(2. lekua) maiatzak 24 17:30 osteguna maiatzak 31 17:30 osteguna ekainak 9 11:00 laruntza
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA Oñati ARETO NAGUSIA	maiatzak 24 18:00 osteguna
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA Bidasoa-Iruñ ARETO NAGUSIA	(2. lekua) maiatzak 10 18:00 osteguna maiatzak 17 18:00 osteguna
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA Eskoriatza ARETO NAGUSIA	maiatzak 31 18:00 osteguna

www.mondragon.edu/etorkitzauna

KIROLAK ▶

Patxi Urizar bigarren
Arbizuko Duatloian

ERREDAKZIOA

Hilaren 20an hasiko da aurtengo triatloi zirkuitua eta asteburuan proba polita izan zen eskualdeko kirolariek zein mailatan dauden ikusteko.

Lehen hitzordua larunbatean izan zuten Arbizun. 137 partaide guztira eta 8-32-4 ko ibilbidea aurretik. 13 segundogatik ez zuen Patxi Urizar billabonatarak (Kraff-Aletiko) garaipena lortu, bigarren sailkatu zen. Bere anaia, Luis Mari Urizarrek (Kraff-Aletiko) ere «bikain» 4. postuan amaitu zuen. Tolosaldeko Triatloi Taldeko Ibon Gonzalez 26. helmugaratu zen eta Iñaki Alistos (Independiente), berriaz, 107. postuan

Bigarren hitzordua igandean izan zuten Senpereko Lakan. Bertan urteko lehen Triatloia jokatu zuten. 255 partaide egin zitoten aurre distantzia olinpikoko triatloia-ri (1.500m-40km-10km). Bertan, Egoitz Zalakain (Kraff-Aletiko) 4. iritsi zen lasterketa handi bat eginaz. Aitor Tejeria (SM. Lagunak) 17. izan zen eta Aimar Agirresarobe (Kraff-Aletiko) 24. Tolosaldeko TT-koei dagokionez 99. iritsi zen Iñaki Insausti, Unai Aizpuru 137., Jose Luis Zabala 138., Edu Gonzalez 146., Aitor El-duaien 158. eta Xabier Beldarain 205.

Emaitza onak, beraz, asteburuan eskualdeko kirolariek erdietsi dituztenak.

FERNANDO SAUNDERS ▶ MUSIKARIA

«Zuzenekoetan magia sortu dadin uzten dugu, eta hori dut gustuko»

Fernando Saunders musikari estatubatuarrak 'I Will Break Your Fall' diskoa aurkeztuko du, etzi, Leidor aretoan

IMANOL GARCIA

Fernando Saunders musikari estatubatuarrak kontzertua emango du bere taldearekin etzi Leidor aretoan, 20:30ean. Bere hirugarren bakarkako lana aurkeztuko du, *I Will Break Your Fall*. Lou Reed eta Marianne Faithfull musikarien taldean aritzen da eta beste hainbat musikari ezagunekin jo du. Azkarateko (Nafarroa) Katarain estudioko Jonan Ordorikaren eskutik etorri da Euskal Herrira. Lou Reedekin etorri zenean bezala, Fronton jabetxean bazkaldu zuen atzo ere.

Nolatan eman behar duzu Tolosan kontzertua?

Jonan Ordorika orain hiru urte inguru ezagutu nuen. Bere anaia Ruperren diskoa erakutsi zidan eta asko gustatu zitzaidan. Euskal musikaren zerbaitek ukitu egin ninduen. Ez jakin arren zer esaten ari den, gustura sentiarazten zaitu. Eta gero Jonanek galdetu zidan ea Ruperren disko batean parte hartuko nuen. Eta hala etorri nintzen eta asko gustatu zitzaidan hemengo giroa, musikariak... Eta orduan jendeak aukera bat eman nahi zidan hemen jotzeko. Asko gustatzen zait Tolosa.

Eta azkenean Tolosan jotzeko aukera izango duzu.

Bai, azkenean. Espero dut jendea etortzea. Asko gustatzen zait inguru hau. Ni hiri batean bizi naiz eta nire bizitza batez ere hirietan egiten dut, nire lana dela eta. Baina pake pixka bat izatea gustatzen zait. Hone-lako ingurune batean egoten naizenean ateratzen zait musika.

Zer espero duzu kontzertu honetarako?

Ez dakizu behin ere zer gertatuko den kontzertuetan. Energia ona izango da guretzat. Berdin dio zenbat jende azaltzen den, guretzat garrantzitsua da kontzertu hau ematea, gure atzetik dauden jende guztia dela eta.

Nola aurkeztuko zenuke zure musika?

Nire herriko musikaren influentzia jaso dut eta baita lana egiten dudana musikariarena ere:



I. GARCIA

Lou Reed, Marianne Faithfull, Eric Clapton... Nire esperientzia musikalaren nahasketa bat da. Musika guztiak gustatzen zaizkit. Country musika ere atsegin dut.

Baxua jotzen duzu, abestu, abestiak konposatu, ekoizpen lana... Zer gustatzen zaizu gehiago?

Txikia nintzenetik abestu eta musika jo nahi nuen. Gauzak elkartzea gustatzen zait ere eta musika konposatzerakoan nire barnealdea adierazten dut. Ekoizterakoan zuzenean jotzea bezalakoa da. Alderdi guztiak ditut gustuko.

Zuzenekoan nola sentitzen zara?

Zuzenekoan batzuetan magia sortu dadin uzten dugu. Eta hori oso ona izaten da. Inork ez daki zer gertatuko den eta hori gustatzen zait, arrisku hori gustatzen zait. Horixe da gehien gustatzen zaidana, mu-

sikaria bainaiz. Haurrek ere etorkizunean musika jotzea nahiko nuke, ez botoi bati ematea bakarrik.

Musikari ezagunekin egiten duzu lan eta zure diskoak ere ateratu dituzue. Nolabait esateko, etorkizunean zuretzako nahi duzu lan egin?

Ez dut esaten horiekin berriro ez dudala lan egingo, baina uste dut iritsi naizela maila batera nire taldea izan dezakadela esateko. Hau egin nahi dut orain. Gaztetxoa nintzenean talde bat bageneukan, baina ez genbiltzan oso serio eta azkenean eskaintza bat jaso nuen New Yorketik eta onartu egin nuen. Eta konturatu nintzen oso esperientzia ona zela jende ezberdinarekin jotzea. Ez neukan presa handirik neure diskoa egiteko. Hobe da zure denbora hartzea eta zerbait egitea horretarako prestatuta zaudenean.

ANOETA ▶ POLITIKA



Anoetako ezker abertzalearen kideek ateratako argazkia. HITZA

Ezker Abertzalearen Eguna, hilaren 12an

ERREDAKZIOA

Ezker Abertzalearen Eguna antolatu dute Anoetan hilaren 12rako. Egun guztiko egitaraua prestatu dute. 10:00etan Herriko Baserritar eta Artisansuen VII. Azoka egingo dute. 11:00etan herriko pilotarien partidak izango dira frontoian. 13:00etan ekitaldia egingo dute eta 14:00etan txekor jatea frontoian. 17:00etan bertso poteoa antolatu dute eta 19:00etan erromeria plaza.

Txekor erretzeari dagokionez, herritarren artean egingo dute eta, beraz, benetako txekor festa ostiral gauetik hasita izango da, erretze lanaren hasierarekin batera. Hain zuzen, txekor jateko txartelak Anoetan Itzuli, Arkupe, Haizea eta Goikoetxean egongo dira sal-

gai. Bestetik, Tolosan Rakun, Villabonan Iratzarren, Ibarren Atarin eta Alegian Ikkinan ere egongo dira salgai. Langileentzat 22 eurotan eta langabetu eta ikasleentzat 15 eurotan erosi ahaliko dira.

Antolatzaileek adierazi dutenez, «egun hau antolatzeak eta egunean bertan aurrera eramateak lana suposatzen du eta horregatik Itzuli tabernan dago lagundu nahi duenarentzat izena eman dezan zerrenda, denon artean errazago egingo baitugu».

Bestalde, herritar oro animatzen dute parte hartzera, «hauteskundearen aurrean eta ezker abertzaleak dituen errokei begira ezkertiar eta abertzaleon indar metaketak berriro eman dezan ezker abertzalea kalean bezala udalean ere erreferente izatera».

ZIZURKIL ▶

Abertzale Sozialistaren herri batzarra

Zizurkilgo Abertzale Sozialistak herri batzarra egingo du gaur Zizurkil Goian. Iriarte kultur etxean egingo dute, 21:00etan. Hauteskundeak eta herri programa izango dira jorratuko dituzten gaiak.

ANOETA ▶

Udalak langileak behar ditu herriko festetarako

Anoetako Udalak herriko festetarako langileak kontratatuko ditu. Kale garbiketa eta peoi lana egin beharko dute. Interesatuak izena eman beharko dute udaletxean hilaren 25a arte.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ZIZURKIL ▶ AGENDA 21

Ikasleek hondakinak murrizteko jasotako ideiak aurkeztu dituzte

Herriko ingurumena hobetzeko eginiko proposamenak jaso ditu alkateak udalbatza aretoan eginiko bilkuran

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalbatza Aretoak ezohiko itxura hartu zuen, egun batez behintzat, Maria Angeles Lazkano alkateak eginiko bilkurara etorritako ehun ikasle baino gehiagorekin erabat beteta baitzegoen. Hondakin gaia herrian nola dagoen jakiteko egindako azterlanaren ondorioak ezagutzeko zen, besteak beste, bilkuran helburua. Hala, umeez hondakinak sorrera murrizteko eta birziklapena sustatzeko hartutako konpromisoen berri eman zioten alkateari, eta, baita, Udalak bere aldetik arlo honetan bultzatza dezakeen proposamenak egin ere.

Eskola Agenda 21 egitasmoaren barruan dago ekimen hau, eta ikasturte osoan zehar, hondakinak sortzeari buruzko azterketa eta kudeaketa planteatu die Pedro Mari Otaño Herri Eskola, San Millan Ikastola eta Jesusen Bihotza Ikastolako



Ehun ikasle baino gehiagok bete zuten udalbatza aretoa. HITZA

ikasleei, egungo egoera hobetzeko asmoz. Ikasleek Zizurkilgo alkatearen aurrean ateratako ondorioen txostena ofizialki aurkezteko aukera izan dute, eta aipaturikoaz gain, Anjel Zubizarreta Zizurkilgo Udaltzainburua eta udal teknikariak ere bertan izan ziren.

«Lurrera zakarkeriarik ez botatzea, ikasmateriala ahalik eta gehien aprobetxatzea, supermerkatuko poltsak bererabiltzea, zakurren gorotzak jasotzea edo apurturikoa bota baino lehen konpontzen saiatzea» izan ziren ikasleek harturiko konpromisoak, Zizurkilgo

hondakin ekidingarri ugari sortzen dela baieztatu ostean.

Bilkuran, hondakin gaia hobetzeko Zizurkilgo Udalak, «har ditzakeen neurriak» ere helarazi zizkioten alkate andreari. Honakook izan ziren, hain zuzen, ikasleen ordezkariak aipaturiko neurri batzuk: «Udalbatzak paper birziklatua erabiltzea, paperontziak egoera onean edukitzea edo kartelak ipintzeko taula egoki batzuk jartzea, edukiontzietan itsatsi beharrean».

Alkatearen erantzuna

Aurrekoek gain, herriko paperontzi guztien aldamenen plastikozko ontziak uzteko edukiontzi bat jartzea, edota beiraren edukiontzi eta zabor ez birziklagarriaren edukiontziaren berdea hobeto bereiztea proposatu zuten. Bestelako iradokizunen artean, ostalaritzarekin akordio batera heltzea egin zuten festetan ontzi birziklagarriak erabiltzeko, baita industriei euren industri-guneak garbi mantentzeko edo eraikinetako hormetako graffitiak garbitzeko ere.

Hauen ondotik, Lazkano alkatearen erantzun-txanda etorri zen, eta honek han planteaturiko gehienarekin «erabat ados» zegoela azaldu zuen, kasu batzuetan proposamenak aplikatzea «aski zaila» ikusten bazuen ere. Egoera hau hobetzeko «borondatea» azaldu zuen, amaitzeko, Zizurkilgo alkateak.

TOLOSA ▶

Asen hautesle elkarteak balio gabe uzteko eskatuko dute

ERREDAKZIOA

Espainiako Fiskaltzak eta Estatuaren abokatuak Abertzale Sozialisten hautesle elkarte denak, 244 denara, balio gabe uzteko eskatuko dute gaur, Auzitegi Goreneko 61eko salan haien kontrako inpugnazioak sartzen dituztenean. Haien ustez, «Batasunaren estrategia dira, eta hautagai asko eta asko lege kanpoko erakundeen hautagai izanak dira lehen».

EAE-ANVko zenbait zerrenden kontra ere joko dutela iragarri du Candido Conde Pumpido fiskal nagusiak. Oraingoz, ez dute jakinarazi zenbaten aurka.

Abertzale Sozialisten hautesle elkarte baliogabete eskaeraz gain, Estatuaren abokatuak Euskal Herriko beste zazpi hautagaitzen kontra ere joko du: Nafarroako bosten aurka (Iruñeko hautes eremukoak denak) eta Gipuzkoako biren aurka (Tolosako hautes eremukoak). Fiskaltzak, berriz, Nafarroako lauren eta Gipuzkoako biren aurka. Espainiako Auzitegi Gorenak bihar edo etzi hartu beharko ditu erabakiak.

VILLABONA ▶ POLITIKA



Iñaki Uribe, PSE-EEko hautagaia

Erredakzioa ▶ Iñaki Uribe PSE-EEko hautagaia izango da datozen udal hauteskunde-etarako, Villabonan. Egungo Udalak aurrera eraman duen etxebizitza politika «gogor» salatu du. «Babes ofizialeko etxebizitza gehiago nahi ditugu, gazteei zuzenduta eta tasatuak», adierazi du Uribek. Bestalde, billabonatar guztioi «aldaketa dakarren proiektu bat» aurkeztuko duela adierazi du hautagaia. HITZA

ZIZURKIL ▶ POLITIKA



Oscar Martinez, PSE-EEko hautagaia

Erredakzioa ▶ Zizurkilgo Udalerako hautagaia ere aurkeztu du PSE-EEK. Oscar Martinez izango da, hain zuzen, alkategaia. Bere esanetan, «Udaletik herriko ekonomia garapena bultzatu nahi dut, lanpostu gehiago eta hobekoak lortze aldera, hau da, lanpostu iraunkorrak eta kalitatezkoak». Ildo honetan, langabetuentzako eskola profesional bat sortzeko konpromisoa erakutsi du Martinezek. HITZA

ABALTZISKETA ▶ KULTURA



Ausa-Gaztelun dauden dorretzeko aztarnak ezkerrean. Eskuinean, tontorra, atzean Txindoki duela. HITZA

Ausa-Gaztelu mendia, euskaldunon historiaren lekuko

Tolosaldeko nafartarren mendi martxan Nafar Estatua aldarrikatuko dute

NEREA URBIZU

Ausa-Gaztelu jentilak, artzainak, eta babesa behar izan duen edozeinentzat leku aproposa izan da. Txindokiren pare-parean dago, eta txikia izanda ere, badu zer kontatu, Tolosaldeko nafartarrek erakutsiko duten bezala. Hilaren 20an, mendi martxa antolatuko dute, Larraitzeko aparkalekutik 10:00etan abiatuta. Honetan, «Euskal Herri osoak Europako Nafar Estatua berreskuratzeko duen zilegitasuna» aldarrikatuko dute, Ausa-Gaztelura igoz. Baina, beste helburu bat ere badu mendi martxak: «Europar Batasunean Euskal Herriari nazio muduan eta beronen adierazpide nagusia izan behar duen Nafar Estatuari zor zaien begirunea aldarrikatzea», hain zuten.

Larraitzen bilduko dira mendi martxa hasteko. Ausa-Gaztelu mendia Txindokiren parean dago: baxuagoa bada ere, Txindokik gordetzen dituen kon-

dairak bezainbeste ere baditu. 904 metrokoa da mendixka. Larraitz eta Larrunarri bailaren artean dago. AHTren bidea bi bailara hauetatik pasako litzateke. Aztarnak bisitatuko dituzte, Nafarroako bandera ipini eta komunikatu bat irakurriko dute.

Historia ezezaguna

Ausa jentilen bizilekua izan zen. Ezaguna da ere, antzinatik artzainen bizitoki eta pasalekua izan dela, Oria ibaiaren ibarretatik Goierriko ijarobide naturala. Ibilbide horretan Ausako gaina zelatatze gune estrategikoa zen eta, jada, XII. mendearen erdialdean Nafarroako Erresumaren parte zenez, gaur egungo Santa Fe eliza eta Saturdi ermita Iruñeko katedraleko dokumentu batzuetan aipatzen da.

Ausa-Gazteluko gaina leku sinbolikoa da Nafar Estatuaren historian, Erresumaren eki eta mendebalde lotzen zituen bidexken zaintza-gune hau 1200.

EGITARAU ▶

MAIATZAK 20, IGANDEA

10:00. Trikitilariak alaituta, Larraitzeko aparkalekuan elkartuko dira: ongi-etorria.

10:30. Ausa-Gaztelu aldera joango dira.

12:00. Tontorrean bildu.

12:00-12:30. Bandera zutitzea gazteluan. Txistuak, *Agurra* eta Nafarroako Gorteen ereserkia.

Komunikatua irakurriko dute.

13:30-14:00. Larraitzen bilduko dira, eta Abaltzisketako Zalbide sagardotegian bazkalduko dute. Egunean zehar trikitilari, txistulari, bertolari eta bestelakoak izango dira.

urteko konkistaren ondoren ere nafar instituzio legitimoen esku izan baitzen.

XIV. mendean, ordea, Gaztelak mendean hartu zuen ingurua eta Nafarroa Garaia inbadiatu zuten, behatoki eta muga funtzio horiek alboratu ziren. 1512an, Gaztelak Nafarroa Garaia inbadiatu zuenean, gaztelarrentzat arriskugarri izan zitekeen gazteluei dorrea suntsitu zien.

Gazteluak harri bildu itxurako tontorra du, Pirinioetako Erdi Aroko gotorlekuek bezala. Antzinatik jentil zulo edo jentil labea bezala ere ezaguna zen.

Tolosaldeko antolatzaileek Nafarroako Estatua aldarrikatu nahi duten guztiak deitu dituzte ekitaldi honetan parte hartzera. «Nafarroako banderak eramatea eta lagunarteko bazkarirako hilaren 17a baino lehenago deitzea eskertuko genuke», honako telefono zenbakira: 607 111 202.



Larraitzetik abiatuko dira eta bertan 10:00etan elkartuko dira. HITZA

ALBIZTUR ▶ GIZARTEA

Agenda 21eko ekintza plana aurkeztuko dute

Bihar 20:30ean udaletxean izango da bilera



Herritarren parte-hartzea garrantzitsua da batzarretan. HITZA

ERREDAKZIOA

Bihar, iluntzean, 20:30ean, hain zuzen, herri batzar bat egingo dute Albizturko udaletxean. Urtebete bada jadanik Agenda 21 prozesuaren baitan Udalak herritarren parte-hartzearekin sorturiko ekintza plana onartu zuela, eta bertan jasotako ekintzen gaur

egungo egoeraren berri emango da batzarrean.

2006an zer egin den, zer egin, zergatik... jakin ahal izango dute herritarrek eta, aldi berean, aukera izango da datorren urteari begira zein gaiei heldu behar zaien eztabaidatzeko. Herritar guztiak dei egiten zaie batzarrera ager daitezten.

KULTURA ▶

Ipuin-kontalaria gaur Alegian eta Orendainen

Gaur haurrentzako ekitaldi dibertigarriak izango dira Alegiko Kultur Etxean eta Orendaingo udaletzeko areto nagusian: Alegian 17:00etan Idoia Sanchez izango da eta Orendainen 18:15ean. Bihar, berriz, Korri, Xalto eta Brinko pailazoak izango dira.

ALEGIA ▶

Hondakinei buruzko erakusketa

Tolosaldeko mankomunitateko erakusketa *Hondakinak amesgaiztorik ez!*, ikusgai egongo da, hilaren 12ra arte Kultur Etxean. Asteazkenean, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara. Larunbatetan, berriz, 10:30etik 13:00etara izango da.

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ERIZAINZTA LAGUNTZAILEA
- FARMAZIA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- DIAGNOSI IRUDIA
- OSASUN DOKUMENTAZIOA
- GIZARTE INTEGRAZIOA
- HAUR HEZKUNTZA

IZEN EMATEA: MAIATZA

ATE IREKIAK: MAIATZAK 17

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

OREXA ▶

Gaurtik igandera
ospatuko dituzte
herriko jaiak

Gaur 12:30ean hasiko dira Ollarraren jaitsierarekin Orexako Festak. Igandera arte iraungo duten jaietan, ekitaldi ugari antolatuta dituzte herritarrek. Gaur 13:00etan sega apustua egingo dute, neska-mutilen artean. Bihar sardin jatea egingo dute. Etzi berriz, 21:00etan herri afaria eta erromeria egongo dira Imuntzo eta Belokirekin. Azken egunean Unai Iturriaga eta Sustrai Colina izango dira bertsoetan.

IBARRA ▶

KZgunean 'Ardoa
ezagutu' mintegia
eskainiko dute

Biharko *Ardoa Ezagutu* mintegia antolatuta dute KZgunean. Goizeko 10:00etatik 12:00etara burutuko da, nahiz eta goiz guztian KZgunea irekirik egon. Hilaren 11n berriz, *Euskara Ziberespazioan* mintegia eskainiko dute.

KIROLA ▶

Zeberio II.a eta
Altuna I.a gaur
Galarretan

Gaur erremonte partidak jokatu dira Hernaniko Galarretan. Patxi Zeberio elduaindarrak eta Altuna I.a amezketarrak parte hartuko dute jaialdian. Imanol Altunak Eizagirrerekin jokatu du Bitoria eta Etxeberria III.aren aurka. Baines Txapelketako irabazleak berriz, Zeberio II.ak, Urrutia izango du atzeleri bezala, Ezkurra eta Etxaberren aurkako partidari. Jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da eta eskualdeko pilotariak 2. eta 3. partidak jokatu dituzte.

IBARRA ▶ AISIA

Omenaldiek emango diote
hasiera Garagardo Festari

Gaur edango dute lehen garagardoa Maite Artolak, Unai Otañok eta EALk



Gaur omenduko dituzten Maite Artola eta Unai Otaño euren zereginetan. Lehen Afganistanen eta bigarrena Izaskunen entrenamenduan. HITZA



ASIER IMAZ

Gaur hasiko da IV. Garagardo Festa Ibarren. 20:00etan Irekiera Nagusia burutuko dute eta bertan, Maite Artola kazetaria, Unai Otaño aizkolaria eta *Sua* filma prestatzen ari den taldea omenduko dituzte, «bakoitzak bere alorrean egiten duen lanaren onarpen gisa». Herriko 16 taldek parte hartu dute antolatze eta laguntzaile lanetan, «auzolanean herri giroa bultzatzeko asmoz». Gaur hasi eta igandera arte iraungo du garagardoaren jaiak.

Maite Artola 35 urteko kazetari ibartarra izango da omenduetariko bat. Kazetaritza munduan lehen urratsak *Galtzaundin*, *Euskaldunon Egun-*

karian eta *Argia* aldizkarian eman zituen. *Egin* Irratian eza-gutu zuen ahozko komunikazioa. 1995. urtean Euskadi Irratian hasi zen lanean, eta gaur egun bertan jarraitzen du. Bi sari jaso ditu *Mezularia* saioan eginiko lanari esker; Rikardo Arregi Kazetaritza Sari Nagusia eta Argia Saria. Berriemaile bezala, Bruselas (Belgika), Afganistanen eta Jerusalemenean ibilia da.

Kirolak ere izango du tartea, Unai Otaño aizkolariari egin dioten omenaldiaren eskutik. Izaskungo Orieta baserriko semea da Unai Otaño. Aita aizkolaran ikusita, bera ere 16 urterekin hasi zen lehen kolpeak ematen. Lan kontuak zirela eta, 18 urterekin aizkora mundua

utzi egin zuen. Arra ezin kendurik, entrenamenduetara itzuli zen. 2006. urtean, jokaturiko bi txapelketak irabazi zituen: Gipuzkoa eta Euskadiko 2. mailako txapelketak. Herri kirolaria izanik, apustuak ere jokatu ditu, bi hain zuzen ere. 2005. urtean Lasarekin batera Olasagasti menperatu zuen. Hurrengo urtean, Donezteben Xabier Mindegia garaitu zuen. Plaza gizona ez den arren, ha-maika sari irabazi ditu iada.

Eneko Aritzaren Lagunak

Gaur egun kultur elkartearen osatu dute. Egoitza Ibarreko garaje batean duen arren, Euskal Herriko txoko desberdinetako kideek osatzen dute EAL.

Hori bai, Ibarra dute «hiribururu». Lehenik *Eneko Aritza*, *Orreagako Guda* laburmetraia egin zuten herriko eta inguruko jendearen laguntzaz. Ondoren animaturik luzemetraiarekin hasi ziren lanean. Iada hiru urte daramatzate proiektu honenkin. Azkena gertu ikusten duten arren, ez diote eperik jarri nahi «lagun arteko jolas honi». Euskal Herriko zazpi lurraldetan grabatu dituzte *Sua* filmeko irudiak, besteak beste hori baitute helburuetariko bat.

Gaur 20:00etatik aurrera egingo diete omenaldi ekitaldia. Ondoren lehen garagardoa eurek edango dute. Horrela emango zaio hasiera garagardo jaiari.

hilberria ▶



Rosa Maria Cazorla

Elizalde ikastetxeko ikasle, guraso, irakasle eta langile guztiok zinen bezain bizi eta alai gordeko zaitugu gogoan.

Elizalde ikastetxea

hilberria ▶



Jose Mari Badiola Elgarresta

Gertuko heriotzak
Dakarigui samina
Lagun gaitzala elkartasunak
Garaitzen ezina.



Puri, bere emaztearen lankideek.

URRETXU-ZUMARRAGA, 2007ko maiatzaren 3a

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

LEITZA ▶

Barriolak eta Irujok gaur materiala hautatuko dute

N. GARZIA

Martinez Irujok eta Barriolak gaur eginen dute material hautaketa Gasteizko pilotalekuan, Ogetan. Material hautaketa 12:00etan izango da eta bertan igande honetan leitzarrak eta iberotarrak igandean jokatu duten norgehiagorako pilotak aukeratu dituzte.

Barriolak eta Martinez Irujok Lau t'erdiko finalean jokatu zuten azkeneko aldira aurrez aurre, eta leitzarrak tanto bakarrarengatik galdu zuenez, igandeko partida ere oso gogorra izango dela aurreikusten da.

Barriola eta Bengoetxea VI.a final-laurdenetan dira jada, baina Oinatz Bengoetxeak datorren igandean jokatu du, maiatzaren 13an, Gonzalezen aurka.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurraremendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ NATUR BIDEAK

IBILBIDEAK ▶ PROPOSAMENAK

1. IRTEERA: 09:00ETAN**Leitza - Leizate - Leizate - Leizate**

Iturrizarreatik Plazaolara sartu.

Tunel askotatik ibili behar denez, eskuargia eramatea gomendatzen da. Dena den, Uitziko tunela (2.700 m) egun horretarako argiztatuko dute. Tunel horretatik ez

pasatzeko beste bide bat badago, seinale zuriekin adierazita dagoena.

2. IRTEERA: 10:00ETAN**Lekunberri - Uitzizko - Lekunberri - Uitzizko**

Lekunberriko tuneletik bidea hartu eta Uitzizko geltokiraino seinaleak

jarraitu behar dira. Ibiltariak 3 tunel igaroko dituzte.

3. IRTEERA: 09:00ETAN**Lekunberri - Uitzizko Tunela - Etxarri - Lekunberri.**

Zuriz eta horiz seinalatutako ibilbide zirkularra (P.R. NA-88). Zailtasuna erdi-go mailakoa,

ibiltzeko ohitura dutenentzako egokia.

4. IRTEERA: 11:00ETAN**Lekunberri - Mugio - Lekunberri.**

Umeentzat oso egokia, 4 kilometro baititu. Pailazoak lagun izango dituzte bide osoan zehar.

Natur Bideen Eguna aurten Lekunberri ospatuko dute

Igandean izanen da eta ekitaldien artean, Partzuergoak Plazaolan zenbait ibilaldi egiteko proposamena luzatu du



Umeak pailazoekin jolasten, lehengo urteko Natur Bideen Egunean. J.A.

NAIARA GARZIA

Igandean Natur Bideen Eguna ospatuko dute Lekunberri eta egun honetarako ekitaldi ugari antolatuko dituzte. Jai egun hau estatu mailan ospatzen da eta natur bideak bultzatzea helburu duenez, igandean Plazaolan barrena zenbait ibilaldi egiteko proposamena luzatu dute Par-

tzuetatik. Honetaz gain, pailazoak egongo dira, musika kontzertua Adagio Laukotearen eskutik, hamaiketako eta artisau azoka.

Lau izan dira proposatu dituzten ibilbideak: lehenengoa 09:00etan hasiko da eta Leitza-tik abiatu eta Lekunberri-raino iritsiko da (13-14 km). Uitzizko tunelean iganderako argia ja-

rriko dute, nahi duenak bertatik igaro dadin. 09:00etarako ere beste ibilbide bat proposatu dute: Lekunberri-tik abiatu eta Uitzizko tunela eta Etxarri zeharkatu ondoren, Lekunberri-raino iritsiko dena (10 km). Hirugarrena 10:00etan izango da eta Lekunberriko geltokitik Uitzizko tuneleraino doa. Joan-etorria bide beretik egingo

Kantina berria

Plazaola Partzuergo Turistikoko kudeatzaile den Yolanda de Carlosek azaldu duen bezala, «Lekunberri izanda jende gehiago etorriko dela pentsatzen dugu. Baina eguraldiaren arabera jende gehiago edo gutxiago animatuko da». Lekunberri Aste Santurako ireki zuten kantina izango da aurtengo berritasuna. «Garai bateko bildegia zena orain kantina bihurtu dute eta barrutik trenatu dirudi. Gainera bertan bizikletak aloka daitezke».

Ibilaldi hauek Plazaolako Partzuergo Turistikotik egingandako proposamenak dira. «Ibilbideetarako irteera ordu batzuk jarri ditugu, baina umeenak izan ezik, ez dute gidaririk izango. Ibilaldia egiten dutenek itzultzean taloa eta edaria dohainik izanen dituzte».

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Tolosan taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. Interesatuta daudenak deitu ondorengo zenbakietara: 635 74 52 91 / 943 69 43 13.

Sukaldaria. Sukaldaria behar da Villabonan lan egiteko. 943 69 19 33.

Sukaldariak. Jangeletarako eta eskoletarako sukaldariak behar dira. 657 77 00 85.

Interesatuta daudenek deitu ondorengo zenbakira: 943 44 48 66.

Gidariak. Erakunde publikoetan lan egiteko gidariak behar dira. 699 13 45 86.

SALGAI

Etxebizitza. 3 logelako etxebizitza eguzkitsua, bista ederrak, atiko gela eta trastelekua. 34.800.000 pzta: 657 77 00 85.

Tolosako etxe batean barneko langile bezala lan egiteko emakumea behar da

Tel.: 677 591 621

MUNIZIBALaltzariak

• 500 m² bi solairutan
• Bertako okasiozko altzariak
• Katalogoz kanpoko kitapena eta prezio bereziak:
Koltxoak, somier-ak, sofak, lasaitasunerako...

Tel.: 943 65 17 61

San Inazio 2

TOLOSA

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Idoia Sanchez ipuin kontalaria liburutegian izango da ipuinak kontatzen, 17:00etan.

Ibarra. IV. Garagardo Festaren irekiera Ibarra plaza 20:00etan. Maite Artola kazetaria, Unai Otaño aizkolaria eta *Sua* filma egiten ari diren Eneko Artzaren Lagunak omenduko dituzte.

Orendain. Idoia Sanchez ipuin kontalaria liburutegian izango da ipuinak kontatzen, 18:15ean.

JAIK

Orexa. Jaien hasiera: 12:30ean oilarraren jaisiera eta 13:00etan sega apustua neska-mutilen artean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
 Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

IRRATIA

Goiko irratia (107 FM)
 12:00: Angel Yañez PPKo Tolosako Udalerako hautagaiarekin elkarrizketa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Txintzarri Txikik Jakan, «arrakasta»

ALEGIA ▶ Kontzertu «arrakatsua» eman zuen Alegiko Txintzarri Txiki abesbatzak Jakako Ziuadelako San Pedro elizan. Bertako Coro Albae Voces abesbatzarekin batera kantatu zuten alegiarrek joan den larunbatean ehundik gora entzule aurrean zituztela. Txalo zaparrada artean agurtu zituzten Txintzarri Txiki Abesbatzako abeslariak orduerdiz kantuan jardun ondoren. Escuelas Pias aterpetxean hartu zuten ostatu. Kontzertua eskaintzeaz gain, Jakako toki esanguratsuaren bisitatzeke aprobetxatu zuten. TXINTZARRI ABESBATZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Gari (Lizartza). Puberri inguruko haiz mardularen azpian elkartuko gattuk. *Biba la revolucion.* Olatz, Ekiñe eta Haimar.



ZORIONAK PUNKARRO!

Osasuna, maitasuna ta Askatasuna. Eutsi Goiar!



URTE ASKOAN

Amaia Otamendi Salaberria.
 Gaur 6 urte. Ebeke sorginari muxu handi bat. Ebekeon partetik.

hirukide

gainberri jesuitinak eskolapioak

www.hirukide.org
 Tel.: 943 670 311



ZORIONAK GARI!

Badator Euskal Herri Berria. Zurekin dago herria!